BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5421

EBAZPENA, 2011ko urriaren 11koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, fikziozko eta animazioko film luzeen eta sortze-dokumentalen publizitate eta sustapenaren aldeko diru-laguntzak arautu eta deialdia egiten duen Aginduaren babesean aurkeztutako eskariak aztertuko dituen Balorazio Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2011ko uztailaren 7ko Agindua, fikziozko eta animazioko film luzeen eta sortze-dokumentalen publizitate eta sustapenaren aldeko diru-laguntzak arautu eta deialdia egiten duena.

Kontuan izanda agindu honen 9. artikuluak Balorazio Batzordearen osaera EHAAn argitara emango dela jasotzen duela,

Honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen osaera argitaratzea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria:

Mikel Toral López, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

Arturo García Fiel jauna.

Faustino Kanalaetxebarria Zamora jauna.

Idazkaria:

Manu Galarraga Izaguirre, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria.

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 11.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.